

Etorkizunaren aurka

Bi gertaerek atentzioa eman didate azken hilabete honetan: lehena, Arantza Quirogak –Euskadiko Alderdi Popularreko presidente zelarik– aurkeztu zuen proposamena, eta bigarrena, Kataluniako Parlamentean aurkeztu dutena. Biek dituzte ezaugarri komunak: bat, etorkizuna argitzeko ekimen ausart baten aurkezpena da, bizikidetza errazteko edota muga batzuk gainditzeko. Bi, ekimen bien aurrean antzeko erreakzioak eta erantzunak izan dira berauek geldiarazteko eta oztopatzeko. Biek dituzte paralelismoak.

Quirogak proposatu zuen Eusko Legebiltzarrean Askatasuna eta Bizikidetza lan taldea edo batzordea. Deigarriena eta ausartena hauxe izan zen: proposamena Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi guztiei –EH Bildu barne– zuzendu zitzaiera eta indarkeriaren “gaitzespena” eskatu beharrean, bere “errefus” garbia exijitzen zuen. Terminologia kontuak alde batera utzita, argi zegoen, eta horrela adierazi zuen Quirogak berak dimisioa aurkeztu zuenean, egungo egoera gainditu nahi zuela, Alderdi Popularra aldatzen saiatu zela bizikidetzarako tresna bihurtu zedin. Azken finean, bere asmoa Legebiltzarreko talde guztien arteko akordio zabala lortzea zen Euskadin askatasuna eta bizikidetza gidatzeko beharrezkoak diren printzipio eta baloreen bitartez. Zentzuzkoa bazirudien ere –eta ausarta, noski–, berehala etorri zen Madrildik erreakzio bortitza, erretiratzeko agindua –Quirogak berak aitortu zenez– eta, berarekin, bere dimisioa eta Alderdi Popularraren jarrera mantentzea. Madrildik iritsi zena, hain zuzen ere, aurrera egiteko aukerak ixtea izan zen, arazoak bere horretan jarraitzea eta, beraz, etorkizuna oztopatzea edo atzeratzea –edo nahia, behintzat–.



Garbiñe Biurrun Mancisidor

LEGELARIA

Deigarriena eta ausartena hauxe izan zen: proposamena Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi guztiei –EH Bildu barne– zuzendu zitzaien eta indarkeriaren “gaitzespena” eskatu beharrean, bere “errefus” garbia exijitzen zuen.

Bestalde, Kataluniako Parlamentean Junts Pel Sik eta CUPek –gehiengoak, beraz– Kataluniako Errepublikak sortzen hasteko lehen urratsa adostu dute. Ez dut orain akordio hori aztertuko, baina

bai esango dut gehiengo parlamentario hori erantzuten ari zaiola irailaren 27ko hauteskundeetan hartutako konpromisoari eta, horregatik, ez zuela sorpresa izan behar.

Kezkatzen nauena da, berriro ere, Estatuak –Espainiako Gobernuak eta hainbat alderdi politikok– akordio horren aurrean aurkeztutako erreakzioa eta ematen ari zaien erantzuna. Alde batetik, argi dago Katalunia izango dela datorren abenduaren 20ko hauteskundeetako gai nagusia eta, horretarako, batzuek erabaki dute erantzuna “konpartituko” dute, badaezpada ere; honela, inork ez du ez irabaziko ez galduko gai potolo honekin. Horrela ikusten dut nik Gobernuak, PPK, PSOEk eta Ciudadanosek azaldutako jarrera: Estatu gaia, denok bateratua –printzipioz, behintzat– eta denok Kataluniako Parlamenteko independentziarantz marraztutako bide orria gelditzeko prest. Erantzun desberdina –printzipioz ere– Podemosek edota Izquierda Unidak eman dutena, noski.

Esan digute legediak eskaintzen dituen aukera guztiak agortuko dituztela horrelako ekimenak aurrera egin ez dezan. Horrek esan nahi du, hasteko, Konstituzio Auzitegira joko dutela eta, gero, beharbada, Konstituzioaren 155. artikulua aintzat hartuta, Gobernuak, Senatuaren gehiengo absolutua bildurik, dagozkion neurriak hartu ahal izango ditu Kataluniako Erkidegoa bere eginkizuna nahitaez betetzera behartzeko.

Bistan denez, Kataluniaren etorkizuna gauzatzea oztopatu eta debekatu nahi dute. Edozein pertsonaren edo herriren etorkizuna Gobernuaren esku balego legez. Zorionez, etorkizuna auzolanean eraikitzen da. ■